

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia**Foru Aldundia / Diputación Foral****Ogasun eta Finantza Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 77/2016 FORU DEKRETUA, apirilaren 26koa, tributuen arloko zenbait erregelamendutan aldaketak egiteko dena.

Foru dekretu honek aldaketak egiten ditu tributuen arloko zenbait erregelamendutan, eta aldaketok hauei eragiten diete: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga; Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga; Ekonomi Jardueren gaineko Zerga kudeatzeko arauak ematen dituen Foru Dekretua; Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalen araubidea, eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudian, aldaketak egiten dira lurraldeko administrazio publikoek ematen dituzten laguntza publikoak salbuesteari dagokionez, halako laguntzen artean sartzearen etxebizitzaren eta eraikinen birgaikuntza eraginkorrerako Renove Planaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak lantzeko eta haien ondoriozko obrak egiteko ematen diren laguntzak.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Araudian, salbuespen bat ezartzen zaio autoliquidazioak 30 egun balioduneko epean aurkezteko betebeharrari; izan ere, zerga-egitateen barruan enpresaburuek edo profesionallek partikularrei ondasun higigarriak gero birsaltzeko asmoarekin erostea sartzen bada, autoliquidazioak aurkezteko epea Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu baten bidez zehaztuko da.

Zerga-betebehar formalen arloan, berariaz jasotzen da informazioa lortzeko jarduketan jatorri izan daitezkeela beste estatu batzuek edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuek elkarren laguntzaren esparruan egindako laguntza-eskaerak. Horrekin batera, eta pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiaren osakeri buruzko arauketan lurralde erkidean egindako aldaketekin bat (2016ko urtarrilaren 1etik aurrera Sozietateen gaineko Zergaren zergadun izango dira, hain zuzen ere, nortasun juridikoa eta merkataritzako xedea duten sozietate zibilak), aldaketak egiten dira halako sozietate zibilei lotuta dauden IFZko gakoetan. Gainera, erregistro-liburuetan eta hirugarren batzuekin egindako eragiketen urteko aitopenean (347 eredua) jasotako eragiketa ekonomikoari buruzko informazioa osatzearen, 347 eredua aurkezteko salbuespena ezartzen da urte naturaleko zatiren batean eragiketa ekonomikoak egiten dituzten zergapekoentzat, baldin eta zergapekoek ez badira inskribatuta egon hileko itzulketen erregistroan edo epe horren zati batean bakarrik egon badira inskribatuta eta, horrenbestez, ez badute urte natural horretako jarduerari dagokion ekitaldi osoari buruzko edukiarekin aurkeztu behar erregistro-liburuetako eragiketari buruzko informazioaren aitopena (340 eredua). Azkenik, zabaldu egiten dira zergapekoari hileko itzulketen erregistroko eta Batasunaren barruko Operadoreen Erregistroko alta ukatzeko edo erregistro horietatik kanpo uzteko kasuak zein IFZ ezeztatzeko kasuak; izan ere, aurreantzean, ez-betetzeak zergapekoak barne-merkataritzako eragiketetan parte hartzearen ondoriozkoak ere izan daitezke, eta ez bakarrik kanpo merkataritzan edo Batasunaren barruko merkataritzan parte hartzeagatikoak.

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 77/2016, de 26 de abril, por el que se introducen modificaciones en varios Reglamentos de carácter tributario.

El presente Decreto Foral introduce determinadas modificaciones en cinco Reglamentos tributarios, que afectan al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos documentados, al Decreto Foral por el que se dictan Normas para la gestión del Impuesto sobre Actividades económicas, al régimen de obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia y al Reglamento de estructura orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas.

En referencia al Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se introducen modificaciones en la exención de ayudas públicas prestadas por las Administraciones públicas territoriales, al objeto de incorporar las correspondientes a las ayudas prestadas en el marco del Plan Renove en materia de rehabilitación eficiente de viviendas y edificios, para la elaboración de proyectos de intervención en el patrimonio edificado de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la ejecución de las obras derivadas de los mismos.

En cuanto al Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados se establece una excepción para la presentación de la autoliquidación en el plazo general de 30 días hábiles desde la realización del hecho imponible para el supuesto de hechos imponibles que comprendan adquisiciones de bienes muebles a particulares por empresarios o profesionales para su posterior reventa, dicho plazo se establecerá por Orden Foral del diputado foral de Hacienda y Finanzas.

En el ámbito de las obligaciones tributarias formales, se reconoce expresamente que el origen de las actuaciones de obtención de información puede encontrarse en peticiones de asistencia formuladas por otros estados o entidades internacionales o supranacionales en el marco de la asistencia mutua. Adicionalmente y en consonancia con las modificaciones introducidas en Territorio Común en la regulación de la composición del Número de Identificación Fiscal de las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica, como consecuencia de la nueva consideración de contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades a las sociedades civiles con personalidad jurídica y objeto mercantil a partir de 1 de enero de 2016, se introducen modificaciones en las claves del NIF relacionadas con dichas sociedades civiles. Además, al objeto de completar la información relativa a las operaciones económicas contenidas en los libros registro y en la declaración anual de operaciones con terceras personas, modelo 347, se establece una salvedad a la excepción de presentar este modelo 347 para los obligados tributarios que ejerzan actividades económicas durante algún período del año natural y que no hayan estado inscritos en el Registro de devoluciones mensuales o lo hayan estado en parte de ese período y por tanto no estén obligados a presentar la declaración informativa con el contenido de los libros registro, modelo 340, durante el período completo de ejercicio de la actividad de ese año natural. Finalmente se amplían los supuestos de denegación de alta o exclusión del Registro de Devolución Mensual y del Registro de Operadores Intracomunitarios, así como de revocación del NIF, a incumplimientos derivados, no sólo por intervención del obligado tributario en operaciones de comercio exterior o intracomunitario, sino también de comercio interior.

Ekonomi Jardueren gaineko Zerga kudeatzeko arauak ematen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko azaroaren 16ko 120/2010 Foru Dekretuari dagokionez, haren edukia egokitu egiten zaie Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zenbait Foru Arau aldatzen dituen 2015eko martxoaren 3ko 3/2015 Foru Arauak Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bateginean egindako aldaketei. Bada, aldaketa horien bidez, modernizatu egin ziren zergen matrikularako sarbidea izateko tresnak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orria gehitu ziren tresna horien artean, baina Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoan xedatutakoa beteta betiere.

Azkenik, zuzenketa bat egiten da Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudian.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Ondorioz, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Aldundiak 2016ko apirilaren 26ko bilera eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

1. artikulua.— *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori*

2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, berridatzi egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 12. artikuluko 1. zenbakiko p) letra (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori), eta honela geratu da idatzita:

«p) + Euskadi 09 Plana, bertan jasotako Renove planei dagokienez (leihotarakoa, elektrotresnetarakoa, galdaretarakoa, aurrezpen energetiko handiko turismoetarakoa eta altzarietarakoa), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta eraikinen birgaikuntza eraginkorrerako Renove Plana, eta aurrerantzean plan horiek xede berarekin ordeztzen dituzten beste planak.»

2. artikulua.— *Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko martxoaren 29ko 63/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori*

Berridatzi egiten da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Araudiaren 28. artikulua (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko martxoaren 29ko 63/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori), eta honela geratu da idatzita:

«28. artikulua.— *Aurkezteko epea*

Autolikidazioak 30 egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, zerga-egitatea gertatzen den unetik aurrera zenbatuta.

Nolanahi ere, zerga-egitate horietan sartuta badago enpresaburuek edo profesionalek partikularrei ondasun higigarriak erostea gero ondasunok birsaltzeko, orduan epe hori barik halako eragiketarako autolikidatzeko eredu onesten duen Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru aginduan zehaztutako epea hartuko da kontuan.

Agiri judizialak direnean, ebazpen judiziala irmo bihurtu den egunean joko da egintzat zerga-egitatea.»

En cuanto al Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 120/2010, de 16 de noviembre, por el que se dictan Normas para la gestión del Impuesto sobre Actividades económicas, se adapta su contenido a los ajustes realizados en el Texto Refundido de la Norma Foral 6/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre Actividades Económicas por la Norma Foral 3/2015, de 3 de marzo, de modificación de diversas Normas Forales en materia tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, que propiciaron una modernización respecto a las posibles herramientas de acceso a la matrícula del impuesto, a través de la página de internet de la Diputación Foral de Bizkaia, respetando lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal.

Finalmente, se introduce una corrección técnica en el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

En su virtud, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de 26 de abril de 2016,

SE DISPONE:

Artículo 1.— *Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril*

Con efectos desde 1 de enero de 2016, se da nueva redacción a la letra p) del apartado 1 del artículo 12 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado mediante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril, que queda redactada en los siguientes términos:

«p). Plan + Euskadi 09' respecto de Planes Renove de viviendas, electrodomésticos, calderas, turismos con gran ahorro energético y mobiliario incluidos en el mismo, así como el Plan Renove en materia de rehabilitación eficiente de viviendas y edificios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y los que le sustituyan con el mismo objetivo.»

Artículo 2.— *Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, aprobado mediante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 63/2011, de 29 de marzo*

Se da nueva redacción al artículo 28 del Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, aprobado mediante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 63/2011, de 29 de marzo, que queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 28.— *Plazo de presentación*

El plazo para la presentación de las autoliquidaciones será de 30 días hábiles a contar desde el momento en que se produzca el hecho imponible.

No obstante, cuando se trate de hechos imposables que comprendan adquisiciones de bienes muebles a particulares por empresarios o profesionales para su posterior reventa, se atenderá al plazo determinado por la Orden Foral del diputado foral de Hacienda y Finanzas que apruebe el modelo de autoliquidación de estas operaciones.

Cuando se trate de documentos judiciales se entenderá realizado el hecho imponible en la fecha de firmeza de la correspondiente Resolución judicial.»

3. artikulua. — *Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori*

Aldaketak egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetzen dituen Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartu zen araudi hori), eta hona zer aldaketa egiten zaizkion:

Bat. Berridatzi egiten da 32. artikuluko 1. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«1. Espainiako erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiak letra bat edukiko du hasieran, haien forma juridikoa adieraziko duena, gako hauen arabera:

- A) Sozietate anonimoak.
- B) Erantzukizun mugatuko sozietateak.
- C) Sozietate kolektiboak.
- D) Sozietate komanditarioak.
- E) Ondasun-erkidegoak, jaraunspen jasogabeak eta beste-lako gakoetan berariaz jasota ez dauden nortasun juridikorik gabeko gainerako erakundeak.
- F) Sozietate kooperatiboak.
- G) Elkartek.
- H) Jabetza horizontalaren araubideko jabeen erkidegoak.
- J) Sozietate zibilak.
- P) Toki korporazioak.
- Q) Erakunde publikoak.
- R) Kongregazio eta erakunde erlijiosoak.
- S) Estatuaren Administrazioa eta autonomia-erkidegoetako organoak.
- U) Aldi baterako enpresa-elkartek.
- V) Beste gakoetan definitu ez diren motak.»

Bi. Berridatzi egiten da 41. artikuluko 2. zenbakiko lehenengo paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

«Bai Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergapekoek, bai atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaien errentak edo etekinak ordaintzen dituztenek, bai eta eragiketa ekonomikoetan, lanbide eragiketetan edo finantza eragiketetan parte hartzen duten edo bitartekari gisa aritzen direnek ere informazio orokorra eman behar dute berariazko arautegian, elkarren laguntzari buruzko araudian eta kapitulu honetan ezartzen denarekin bat etorritik.»

Hiru. Berridatzi egiten da 41. artikuluko 3. zenbakiko bigarren paragrafoa, eta honela geratu da idatzita:

«Informazioa lortzeko jarduketak administrazio-organu jardueraren ekimenez edo, legez ezarritako lankidetzetan, beste administrazio edo jurisdikzio organo batzuek eskatuta egin daitezke; beste estatu batzuek edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuek eskatuta ere egin daitezke, elkarren laguntzaren esparruan.»

Lau. Berridatzi egiten da 43. artikuluko e) letra, eta f) letra gehitzen da; honela geratu dira idatzita:

«e) Araudi honen 46 bis artikuluan ezarritakoaren arabera eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan jasotako eragiketen berri eman behar duten zergapekoak, araudi honen 39 bis artikuluan ezarritakoak.»

«f) Aurreko letran adierazitakoez bestelako zergapekoek, baldin eta beren jarduerari dagokion epe osoan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatuta egon badira eta, hori dela eta, araudi honen 47. artikuluan aipatzen den informazio-aitorpena aurkeztu behar badute jarduera hori egiten duten ekitaldi guztietan.»

Artículo 3. — *Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre*

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre:

Uno. Se da nueva redacción al apartado 1 del artículo 32, que queda redactado en los siguientes términos:

«1. Para las entidades españolas, el número de identificación fiscal comenzará con una letra, que incluirá información sobre su forma jurídica de acuerdo con las siguientes claves:

- A) Sociedades anónimas.
- B) Sociedades de responsabilidad limitada.
- C) Sociedades colectivas.
- D) Sociedades comanditarias.
- E) Comunidades de bienes, herencias yacientes y demás entidades carentes de personalidad jurídica no incluidas expresamente en otras claves.
- F) Sociedades cooperativas.
- G) Asociaciones.
- H) Comunidades de propietarios en régimen de propiedad horizontal.
- J) Sociedades civiles.
- P) Corporaciones Locales.
- Q) Organismos públicos.
- R) Congregaciones e instituciones religiosas.
- S) Órganos de la Administración del Estado y de las Comunidades Autónomas.
- U) Uniones Temporales de Empresas.
- V) Otros tipos no definidos en el resto de claves.»

Dos. Se da nueva redacción al primer párrafo del apartado 2 del artículo 41, que queda redactado en los siguientes términos:

«Los obligados tributarios que realicen actividades económicas, así como aquellos que satisfagan rentas o rendimientos sujetos a retención o ingreso a cuenta, intermedien o intervengan en operaciones económicas, profesionales o financieras, deberán suministrar información de carácter general en los términos que se establezca en la normativa específica, en la normativa sobre asistencia mutua y en este capítulo.»

Tres. Se da nueva redacción al segundo párrafo del apartado 3 del artículo 41, que queda redactado en los siguientes términos:

«Las actuaciones de obtención de información podrán realizarse por propia iniciativa del órgano administrativo actuante o a solicitud de otros órganos administrativos o jurisdiccionales en los supuestos de colaboración establecidos legalmente o a petición de otros Estados o entidades internacionales o supranacionales en el marco de la asistencia mutua.»

Cuatro. Se da nueva redacción a la letra e) y se añade una letra f) al artículo 43, que quedan redactadas en los siguientes términos:

«e) Los obligados tributarios recogidos en el artículo 39 bis del presente Reglamento que deban informar sobre las operaciones incluidas en el libro registro de operaciones económicas, de acuerdo con el artículo 46 bis de la citada disposición.»

«f) Los obligados tributarios distintos de los señalados en la letra anterior que, por permanecer inscritos en el Registro de devolución mensual del Impuesto sobre el Valor Añadido durante la totalidad del periodo correspondiente al ejercicio de su actividad, deban presentar la declaración informativa a que se refiere el artículo 47 de este Reglamento por todos los periodos en los que se ejerce la misma.»

Bost. Berridatzi egiten da 69. artikuluko 1. zenbakiko f) letra, eta honela geratu da idatzita:

«f) Egiaztatzen bada zergapekoak esku hartu duen eragiketen ondorioz haren zerga-betebeharren bat ez betetzea etor daitekeela edo zergapekoak behar ez bezalako zerga-onurak edo itzulketak lor ditzakeela Balio Erantsiaren gaineko Zergan.»

4. artikulua.— *Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko azaroaren 16ko 120/2010 Foru Dekretua aldatzea; dekretu horren bidez, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga kudeatzeko arauak ematen dira*

2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketak egiten dira Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko azaroaren 16ko 120/2010 Foru Dekretuan; dekretu horren bidez, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga kudeatzeko arauak ematen dira, eta hona zer aldaketa egiten zaizkion:

Bat. Berridatzi egiten da 2. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«2. artikulua.— *Matrikula interesdunen eskura jartzea*

1. Matrikula, adierazitako kuota edozein delarik ere, interesdunen eskura egongo da, eta interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian izango dute matrikularako sarbidea; horretarako, kontsulta-formulario batzuk egongo dira, identifikazio-datu batzuk eskatuko dituztenak datu pertsonalak behar bezala zaintzen direla ziurtatzeko. Matrikula 15 egun naturalean zehar egongo da eskuragarri, martxoaren 1a baino lehen.

2. Udal kuoten kasuan, Ogasun eta Finantza Sailak urte bakoitzeko otsailaren 10a baino lehen bidaliko die matrikula udalei.

3. Matrikulak ikusgai daudela adierazteko iragarkiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatuko dira, edozein delarik ere iragarri nahi den kuota mota. Horrez gainera, lurralde historikoan gehien saltzen diren egunkarietako batean ere publikatu beharko dira iragarkiok.»

Bi. Berridatzi egiten da 3. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«3. artikulua.— *Matrikularen aurkako errekurtsuak*

1. Matrikula publikatzeko ediktuan, haren aurka aurkez daitezkeen errekurtsuen berri emango da, bai eta adierazi ere zer organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zer epe dagoen errekurtsuok aurkezteko. Epe horiek matrikula interesdunen eskura jartzeko epea amaitu eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

Matrikulan subjektu pasibo bat gehitzea, handik kanpo uztea edo foru dekretu honen 1. artikuluko 2. zenbakian aipatutako datuetarik edozein aldatzea, hiru egintza horiek, bada, administrazio-egintzak dira, eta egintzon aurka berraztertze-errekurtsua (eskumena duen organoaren aurrean) edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkez daiteke. Goian aipatutako egintzen aurka berraztertze-errekurtsua edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezteak ez du ekarriko egintzon ondoko likidazio-ekintzak etetea, salbu eta beren-beregi hala egitea erabakitzen badute administrazio-organok edo Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak.

2. Udal kuoten kasuan, haien kudeaketa esleitura duen udalari jakinarazi behar zaizkio matrikularen aurkako berraztertze-errekurtsuak aintzat hartzearen ondoriozko zentsu-egintzak, matrikula horrek aipatzen duen ekitaldiko maiatzaren 31 baino lehen.»

5. artikulua.— *Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuaren bidez onartu zen araudi hori*

Edukirik gabe uzten da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuaren bidez onartu zen Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudiaren 28. artikuluko 7. zenbakia.

Cinco. Se da nueva redacción a la letra f) del apartado 1 del artículo 69, que queda redactada en los siguientes términos:

«f) Cuando se constate la posible intervención del obligado tributario en operaciones de las que pueda derivarse el incumplimiento de sus obligaciones tributarias o la obtención indebida de beneficios o devoluciones fiscales en relación con el Impuesto sobre el Valor Añadido.»

Artículo 4.— *Modificación del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 120/2010, de 16 de noviembre, por el que se dictan Normas para la gestión del Impuesto sobre Actividades económicas*

Con efectos desde 1 de enero de 2016, se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 120/2010, de 16 de noviembre, por el que se dictan Normas para la gestión del Impuesto sobre Actividades económicas:

Uno. Se da nueva redacción al artículo 2, que queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 2.— *Puesta a disposición de los interesados de la Matrícula*

1. La matrícula, cualquiera que sea la cuota señalada, se pondrá a disposición de los interesados en la página de Internet de la Diputación Foral de Bizkaia a través de formularios de consulta que requerirán de la aportación de una serie de datos identificativos a los efectos de garantizar la adecuada protección de los datos de carácter personal, durante 15 días naturales, con anterioridad al 1 de marzo.

2. Cuando se trate de cuotas municipales, el Departamento de Hacienda y Finanzas remitirá la Matrícula a los Ayuntamientos antes del 10 de febrero de cada año.

3. Los anuncios de puesta a disposición de los interesados, cualquiera que sea la clase de cuota señalada, se publicarán en el “Boletín Oficial de Bizkaia”. Además, se deberán publicar en un diario de los de mayor difusión del territorio histórico.»

Dos. Se da nueva redacción al artículo 3, que queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 3.— *Recursos contra la Matrícula*

1. En el edicto de publicación de la Matrícula se expresarán los recursos que contra la misma puedan interponerse, los órganos ante los que deban presentarse y los plazos para su interposición. Dichos plazos comenzarán a contarse desde el día inmediato siguiente al del término del período de puesta a disposición de los interesados de la Matrícula.

La inclusión de un sujeto pasivo en la Matrícula, así como su exclusión o la alteración de cualquiera de los datos a los que se refiere el apartado 2 del artículo 1 de este Decreto Foral, constituyen actos administrativos contra los que cabe interponer recurso de reposición ante el órgano competente o reclamación económico-administrativa. La interposición del recurso de reposición o reclamación económico-administrativa contra los actos citados no originará la suspensión de los actos liquidatorios subsiguientes, salvo que así lo acuerde expresamente el órgano administrativo o el Tribunal Económico Administrativo Foral.

2. Los actos censales que sean consecuencia de la estimación de recursos de reposición contra la Matrícula, en el caso de cuotas municipales, deberán ser comunicados al Ayuntamiento que tenga atribuida la gestión antes del 31 de mayo del ejercicio al que se refiera dicha Matrícula.»

Artículo 5.— *Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 197/2011, de 13 de diciembre*

Se deja sin contenido el apartado 7 del artículo 28 del Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 197/2011, de 13 de diciembre.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, berariaz beste egunen bat adierazten ez bada.

Bilbon, 2016ko apirilaren 26an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-543)

DISPOSICIONES FINALES

Primera

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dicar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Segunda

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», salvo que expresamente se disponga otra fecha diferente.

En Bilbao, a 26 de abril de 2016.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-543)

Euskara eta Kultura Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 78/2016 FORU DEKRETUA, apirilaren 26koa; horren bidez foru diru-laguntzen oinarriak onartzen dira eta deialdia arautzen da harri-arrastatze probak antolatzen dituzten udalentsako, euren udalerrietan, 2016ko ekitaldian zehar.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremani buruzko azararen 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikularen arabera, lurralde historikoei dagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako legeak garatu eta betearazteko eskumena.

Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 2.3.t artikulua dio, halaber, aginte publikoek kirolaren praktika behar bezala gauzatzea bermatuko dutela, bakoitzak bere eskumen-esparruaren barruan. Horretarako, burutuko duten kirol politikak, besteak beste, kontuan izan behar du Euskal Herriko kirol-motek babes eta sustapena.

Bizkaiko Foru Aldundiak, gure lurralde historikoan bertako kirolak bultzatu nahirik, interes publikotzat jotzen du, pisu konparatuan zein pisu askean egiten diren modalitateetan, harri-arrastatze alorrean idi probak, zaldi/behor probak eta astar/asteme probak udalerrri barruan antolatzen dituzten udalei diru-laguntza hauek ematea.

Diru-laguntza hauen deialdia egiterakoan Bizkaiko Foru Aldundiak hainbanaketa sistemaren bidezko lehiaren araubidea aukeratu du, deialdi hau bere udalerriri harria arrastatzeko probak antolatu eta foru dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalentsat baita, haien artean ez delarik alderaketarik egingo. Diru-laguntzak eskabidean aurkeztutako datuak kontuan hartuta eta bosgarren artikuluko balorazio irizpideen arabera emango dira. Artikulu horretan ezartzen da, aurrekontuetan dagoenaren arabera, eta beti aurrez ikusitako gehieneko mugak errespetatuz, diru-laguntza kalkulatzeko hainbanaketa egin ahal izango dela, sobratu dena banatuz zein proportzioaren arabera diru-laguntzen zenbatekoa gutxituz.

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3 artikulua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen Diru-laguntzen Erregelamendua kontuan hartuta, eta Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen martxoaren 8ko 42/2016 Foru Dekre-

Departamento de Euskera y Cultura

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 78/2016, de 26 de abril, por el que se aprueban las bases y se regula la convocatoria de subvenciones forales destinadas a la organización de pruebas de arrastre de piedra por parte de los Ayuntamientos en sus respectivos Municipios durante el ejercicio 2016.

El artículo 7.b.6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establece que corresponde a los Territorios Históricos el desarrollo y la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de fomento del deporte.

El artículo 2.3.t de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco señala asimismo que los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias, garantizarán el adecuado ejercicio de la práctica del deporte mediante una política deportiva basada, entre otros, en la protección y fomento de las modalidades deportivas autóctonas.

La Diputación Foral de Bizkaia, a fin de fomentar el Deporte Autóctono en nuestro Territorio Histórico, considera de interés público la concesión de estas subvenciones a los Ayuntamientos que organizan en su Municipio Pruebas de Arrastre de Piedra en las modalidades de arrastre de piedra por bueyes, tanto en peso comparado como en peso libre, arrastre de piedra por caballos/yeguas y arrastre de piedra por burros/as.

El régimen de concurrencia mediante el sistema de prorrateo por el que ha optado la Diputación Foral de Bizkaia al convocar estas ayudas responde a que esta convocatoria está dirigida a los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia que organicen en sus respectivos Municipios pruebas de arrastre de piedra que reúnan los requisitos establecidos en el presente Decreto Foral sin realizar una comparación entre ellas. Las subvenciones se concederán teniendo en cuenta los datos aportados en la solicitud, y en función de los criterios de valoración del artículo quinto, que establece que, en función de la disponibilidad presupuestaria, y respetando siempre los límites máximos previstos, podrá procederse al prorrateo para el cálculo de las subvenciones, bien distribuyendo el sobrante, bien reduciendo el importe de las mismas de forma proporcional.

En virtud de lo expuesto, vistos los artículos 17, 39 k) y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, y habida cuenta de las facultades atribuidas por el Decreto Foral 42/2016, de 8 de